

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Edizio gaurkotu bat



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga


Azkena aletu genuen hemen Pierre Topet, a.k.a. Etxahun poetaren bizitza aletzen zuen obra, *Joanak joan*, Jon Etxaiderena. Ekar dezagun gaurkoan Pierre Topet, a.k.a. Etxahun poetaren obra bera, zeinak era berean balioko digun ulertzeko bere bizitza. Hitzaurrean dio Xipri Arbelbidek: “Kantu horiek izan ez balire, nehork ez zuen Etxahun izan zenik ere jakin-en”. Kontziente da Etxahun halaber, aitortzen duenean doala “Ene bizitziaren kobla ezartera”. Adibidez “Bizitzearen kantorea” izeneko sortan, zeinean berrogeita bederatzi estrofatan haizatzen diren, urtez urte, Etxahunen bizitzaren lehen berrogeita zortzi urteak. Bizitza bat bestalde sufrimenduz betea –“Etxahon’en zorthia izan da aiphatü, / Mündian gütik dila haboro sofritü”–. Sortzetik beretik –“Aitetamer beininzan haurreti hügüntü”–: *bullyinga* jasan behar izan zuen, premugoa kendu zioten, ondasunak galdu zituen; maite zuen emakumearekin jarraitzea debekatu zioten, beste emakume batekin ezkontzera behartu zuten, emaztea auzoarekin enbolikatu zen, bastart bat egiteraino. Ondorioz, tratatu txarrak, presondegian egonaldiak, judizioak bizi osoan zehar. Eta suizidio saia-keraren bat: “Hüllan ezarri nintzan fi gaixto egitera”.

Etxahun, beraz, poeta esan dezagun erromantikoa, ez akaso ikuspuntu teoriko batetik, baina bai ezinbestean praktikan, bizimodu hain makurra eraman zuenez testuetara. Ni indibidualaren goraipamena, nahi bada “Ni”-aren literatura, baina 1850 aurretik, XIX.

**Piarra Topet,
Etxahun
(Bertso bilduma)**
XIPRI ARBELBIDEK
PRESTATUA

Elkar, 1987

*Pierre Topet Etxahun koblakaria.
(Barkoxe, 1786–Barkoxe, 1862).*



mendearen lehen erdian. Ez bakarrik: orobat kronika beltza –“Bizia deronak idoki personari / Beria ere zor dila, orhit hadi”–, kronika horia –“Haurrak aita nur din deikük erranen”–, gai sozialak –esaterako emigrazioa: “Montebidorat dira hanitz abiatzen”–, edota engaiamendu politikoa –botoa eskatzeraino: “Egizie Musde Chahori zien botzen emaitia”–.

Piarra Topet Etxahun. 1786-1862 biografia-
ren osagarri, bertso bilduma honek biltzen ditu ustez zubererazko testu originalak (ez baitira Etxahunek idatzi bezala jasotzen) eta ustez batura egin egokitzapenak (askotan hobeki ulertzen baitira zubereraz omen diren bertsioak), Xipri Arbelbidek atunduak denak, iruditu zait pixka bat aliritzira. Sarean ere badaude Etxahunen testuak bestela. Baina uste dut XXI. mendeko irakurleak merezi duela edizio gaurkotu bat, garaikidea, auskalo kritikoa, Etxahunen bertsoez gozaraziko liokeena. ■